

## T3T eta T2T 2026 ARAUDIA

### 1. ANTOLAKUNTZA

- Oargi Mendi Elkarteak, G-20162665 kirol erregistroetako zenbakiarekin T3T Maratoia eta T2T lasterketaren antolakuntza hartzen du bere gain.

### 2. EGUNA ETA LEKUA

- T3T mendi maratoia **2026ko ekainaren 14ean**, igandea, ospatuko da eta **goizeko 8:45ean** emango zaio hasiera. Irteera eta helmuga, Tolosako Triangulo plazan izango da.
- T2T lasterketaren irteera ordua aldiz, **goizeko 9:30tan** izango da leku eta egun berean.

### 3. IBILBIDEA






- T3T lasterketak, TOLOSA - IBARRA - LEABURU - ELDUAIEN - IRURA - ANOETA - ALKIZA herriak eta ERROIZPE/LARTE - BELABIETA - UZTURRE - ERNIO - ERNIOZABAL mendiak igarotzen ditu besteak beste. Ibilbideak, 42,8 kilometroko luzera eta +2878ko desnibel positibo ditu (igarotako lekuen ordena aldatuko da urtean aukeratutako ibilbidearen noranzkoaren arabera).
- T2T lasterketak TOLOSA - IBARRA - LEABURU - ELDUAIEN herriak eta ERROIZPE/LARTE - BELABIETA - UZTURRE mendiak igarotzen ditu. 24,4 kilometroko luzera eta +1600 metroko desnibel positiboa ditu (igarotako lekuen ordena aldatuko da urtean aukeratutako ibilbidearen noranzkoaren arabera).
- Bi lasterketen neurketak ez daude homologatuta.
- Antolakuntzak, ordezko ibilbidea prestatuta izango du lasterketa eguna baino lehen, ibilbidean edo lasterketaren prestaketan arazoak sortuko balira. Aldaketa hauek, ahalik eta azkarren zabalduko lirake antolakuntzaren kanal ezberdinetatik. Antolakuntzak, bestalde, ustekabeko arrazoi indartsu batengatik lasterketa bertan behera uzteko ahalmena ere izango du.

### 4. SEINALEZTAPENA




- Ibilbidea, probaren karteekin, banderatxo laranjaekin eta zinta ezberdinekin behar bezala adierazita eta ikusgai egongo da. Ibilbidea nahita ez jarraitzeak lasterketatik kanporatzea ekarriko dio lasterkariari. Derrigorrezkoa izango da seinaleztaturiko bidetik ez ateratzea, ingurumenari ahalik eta higadura gutxien sortze aldera.


### 5. DENBORA KONTROLAK ETA KANPORATZE POSTUAK

- Antolakuntzak, hainbat derrigorrezko denbora kontrol ipini ditu ibilbidean zehar, eta haietatik igarotzea ezinbestekoa izango da. Horietan, araututako kontrolak egingo dira. Antolakuntzako arduradunek, kanporatze puntuetan aurrez ezarritako denbora aurreikuspenak betetzen ez dituzten korrikalariak, probatik kanpo utziko dituzte. Halaber, araudia betetzen ez duena, markatutako ibilbide osoa osatzen ez duena, dortsala ikusgai ez daramana, antolatzaileen aholkuei kasurik egiten ez diena edo beste kirolariekiko errespetu falta erakusten duen korrikalaria ere probatik kanpo utzi dezake antolakuntzak.

| T3T Orduaren Noranzkoa (1)   | KM   | KORTEA | ANOA GUNEA |
|--|------|--------|------------|
| Mendikute azpi   | 5,9  | --     | Bai        |
| Ernio           | 10   | --     | Ez         |
| Zelatun  | 11,1 | --     | Bai        |
| Alkiza   | 16,4 | --     | Bai        |
| Irura           | 22   | 4h 00' | Bai        |
| Uzturre         | 25,1 | --     | Ez         |
| Kaxkubi  | 27,8 | --     | Bai        |
| Elduaien        | 33,6 | 7h 00' | Bai        |
| Erroizpe-Larte  | 37,2 | --     | Ez         |
| Aitzolak   | 38,0 | --     | Bai        |
| Tolosa   | 43,6 | 9h 00' | Bai        |

| T3T Kontraorduaren noranzkoa (2)   | KM   | KORTEA | ANOA GUNEA |
|--|------|--------|------------|
| Aitzolak   | 5,5  | --     | Bai        |
| Erroizpe-Larte  | 6,3  | --     | Ez         |
| Elduaien        | 10   | --     | Bai        |
| Kaxkubi  | 15,8 | --     | Bai        |
| Uzturre         | 18,4 | --     | Ez         |
| Irura          | 21,6 | 4h 00' | Bai        |
| Alkiza        | 27,1 | 5h 15' | Bai        |
| Zelatun       | 32,4 | 7h 00' | Bai        |
| Ernio         | 33,5 | --     | Ez         |
| Mendikute azpi   | 37,7 | --     | Bai        |
| Tolosa   | 42,8 | 9h 00' | Bai        |

| T2T Orduaren Noranzkoa (1)   | KM   | KORTEA | ANOA GUNEA |
|--|------|--------|------------|
| Pixuaga  | 3,0  | --     | Bai        |
| Uzturre         | 5,8  | --     | Ez         |
| Kaxkubi  | 8,5  | --     | Bai        |
| Elduaien        | 14,3 | 3h 15' | Bai        |
| Erroizpe-Larte  | 18,0 | --     | Ez         |
| Aitzolak   | 18,8 | --     | Bai        |
| Tolosa   | 24,4 | 5h 00' | Bai        |

| T2T Kontraorduaren noranzkoa (2)   | KM   | KORTEA | ANOA GUNEA |
|--|------|--------|------------|
| Aitzolak   | 5,5  | --     | Bai        |
| Erroizpe-Larte  | 6,3  | --     | Ez         |
| Elduaien        | 10   | --     | Bai        |
| Kaxkubi  | 15,8 | --     | Bai        |
| Uzturre         | 18,4 | 3h 45' | Ez         |
| Pixuaga  | 21,4 | --     | Bai        |
| Tolosa   | 24,4 | 5h 00' | Bai        |

- Lesio edo istripuren batengatik ez bada, korrikalariak ez luke proba bertan behera utzi behar igarotze kontrolatik kanpo. Igarotze-kontrola baino lehen, proba bertan behera uztea erabaki duenak, proba ixteaz arduratzen direnei abisatuko die. Kasu guztietan, derrigorrezkoa da antolakuntzari berri ematea.
- Korrikalariak, ezinbestean, dortsala eta eskumuturrekoa gordeko ditu antolakuntzak eskaintzen dituen zerbitzuak (garraioa, anoa gunekak, kontsigna...) erabili nahi baditu.
- Antolakuntzak, edozein korrikalari aldi baterako gelditzea edo lasterketa bertan behera uztera behartu dezake, egoerak, bere osasun fisikoa edo segurtasuna arriskuan jartzen baditu.
- Osasun zerbitzura jotzen duten korrikalariak, haien iritzien eta balorazioen esku geratzen dira. Ondorioz, haien erabakiak onartu beharko dituzte. Osasun zerbitzuek edozein kasutan erabaki hauek hartu ahal izango dituzte:
  - Lasterketa jarraitzeko gai ez den edozein korrikalari kanporatzea (dortsala desaktibatuz).
  - Arriskuan ikusten duten edozein korrikalari ebakutzeari egokien iruditzen zaien baliabideen bitartez.
  - Edozein korrikalari osasun zentro batera eramatea, haren egoerak egokiena hori dela erakusten badu.

## 6. PARTE HARTZEA ETA IZEN EMATEA

- Araudi honek dioena betez gero, T3T-T2T lasterketetan, 18 urteak beteak dituen kirolari orok parte hartu ahal izango du. Urteak, egunean bertan beteta izan beharko ditu eta ez urtean zehar. Antolakuntzak, proba aurretik, mediku azterketa bat egitea gomendatzen die parte hartzaile guztiei eta hauek bere gain hartuko dute proban gerta litekeen edozein arazo.
- Antolakuntzak edozein lasterkariri, lasterketan parte hartzea ukatzeko eskubidea izango du, euren iritziz parte hartze horrek euren irudiaren aurka egiten duela erabakitzen edo ondorioztatzen badu.
- **T3T maratonean** gehienez **325** parte hartzaile izango dira, izen emate ordena zorrotz jarraituko delarik internetez. Izen ematea, <http://www.kronoak.com> web atariaren bidez egingo da eta kreditu/debitu txartel bidez ordaindu beharko da. Izen ematearen lehen epea **urtarrilaren 7an, arratsaldeko 20:00etan hasita, martxoaren 7ra bitarte izango da. Izen ematea 55 eurokoa izango da denentzat.** Bigarren epea, baldin eta dortsalak gelditzen badira, **martxoaren 7tik, arratsaldeko 20:01etatik, maiatzaren 24a arratsaldeko 20:00ak bitarte izango da eta 60 euroko salneurria** izango dute hurrenez hurren. Ordainketaren barnean sartzen dira: parte hartzeko eskubidea, istripu edo erantzukizun zibileko aseguruia (istripuen aseguruia), osasuna laguntza, anoa postuetako produktuak, lasterkari poltsa, kontsigna, dutxak, amaierako anoa gunea, road book-a pdf formatuan, erretiratuen garraioa eta bestelako komunikazioak.
- **T2T lasterketan** gehienez **425** parte hartzaile izango dira eta izen ematea zozketa bidez egingo da. Izen ematea, <http://www.kronoak.com> web atariaren bidez egingo da **urtarrilaren 7an, arratsaldeko 20:00etan hasita eta urtarrilaren 14a arratsaldeko 23:59ak arte.** Ondoren zozketa egingo da eta onuradunei ordainketa egiteko abisua iritsiko zaie **izen ematean jarritako posta elektronikoa berdinerara.**

- 48 orduko epea izango da izen ematea gauzatzeko eta ordainketa egin ezean, bertan behera geldituko da. Ordainketa kreditu txartel bidez ordaindu beharko da. **Salneurria, 35€ izango da.**
- Izen emateak **maiatzaren 24a arratsaldeko 20:00ak bitarte izango dira.**
- Ordainketaren barnean sartzen dira: parte hartzeko eskubidea, istripu edo erantzukizun zibileko aseguru (istripuen aseguru), osasuna laguntza, anoa postuetako produktuak, lasterkari poltsa, kontsigna, dutxak, amaierako anoa gunea, road book-a pdf formatuan, erretiratuen garraioa eta bestelako komunikazioak.
- Behin izena emateko kuota ordainduta, proban parte ez hartzea erabakitzen duenari ez zaio dirurik itzuliko. Itzulketa edo baja eskatzen duenak, itxaron zerrendatik norbait sartu ezker jasoko du itzulketa maiatzaren 24a bitarte, itxaron zerrendako hurrenkeraren arabera. Ez da lagunaren artean aldaketarik onartuko. Data horretaz geroztik ez da aldaketarik egingo arrazoia edozein dela ere bi lasterketetan.
- Soilik itzulketa honako kasu hauetan egingo da: parte hartzaileen istripu larri, gaixotasun larri edo heriotza, eta kasu horretan mediku txostena ezinbestekoa izango da beharrezko zigilu eta sinadurarekin, maiatzaren 24a bitarte.
- Itxaron zerrendak prozedura jakin bat du. Zerrendako parte hartzaileek emaila jasoko dute eta **48 ordu-ko epea izango dute izena emateko.** Behin denbora hori pasata izen ematea egin ezean hurrengoari emango zaio aukera (maiatzaren 24a bitarte).
- Antolakuntzak bere erabilerarako dortsal kopuru bat gordeta izango du lasterketa bakoitzean.
- Behin izena emanda ezingo da lasterketaz aldatu.
- Izen emateak pertsonalak dira.
- Lasterketatik kanporatzea, erregistroetatik kentzea eta hurrengo urteetan parte hartzea debekatzea ekarriko dute honako arau hauste larri hauek.
  - Beste norbaiten izenean dagoen dortsal batekin parte hartzea (biak izango dira kanporatuak, titularra eta araua bete ez duena).
  - Beste korrikalari batek erabili dezan, dortsala fotokopiatzeko uztea (kasu honetan ere biak kanporatuko dira, titularra eta araua bete ez duena).
  - Korrikalariekiko edo antolakuntzarekiko edozein jarrera itsusiren edo larriren bat izateak.
- **Maiatzaren 24tik aurrera, arratsaldeko 20:01ak ondoren jasotako eskaerak EZ dira aintzat hartuko.**

## 7. ADIN MAILAK ETA SARIAK

- Gizonezkoetan eta emakumezkoetan ez da adin mailarik izango BI lasterketetan.
- Gizonezko eta emakumezko guztiek maila absolutuan hartuko dute parte.
- T3T maratoian, eskualdeko lehen gizonezkoarentzat eta emakumezkoarentzat sari berezia izango da. T2Tn ez da horrelako saririk izango.
- T3T maratoian, maila absolutuan, emakumezkoetan eta gizonezkoetan banatuko diren sariak:
  - 1. Postua 500 euro
  - 2. Postua 250 euro
  - 3. Postua 125 euro
- Eskualdeko lehenengoentzat (gizon eta emakume) sariak garaikurrak izango dira. Sariak pilatu egin ahalko dira.
- T3T maratoian, Erroizpe/Larte tarteko helmugan denborarik onenak egiten dituzten gizonarentzat eta emakumearentzat 200 euroko saria egongo da; tontorrera iritsitako postuak adieraziko du irabazlea. Saria jaso ahal izateko, lasterketa amaitzea derrigorrezkoa izango da.
- T2T lasterketan, maila absolutuan, emakumezkoetan eta gizonezkoetan banatuko diren sariak: Proba honetan, ez da beste saririk izango.
  - 1. Postua 150 euro
  - 2. Postua 100 euro
  - 3. Postua 50 euro
- Sari banaketa 14:00etan izango da.
- Probako irabazleak, helmuga marra lehen postuetan pasatzen dutenak izango dira.

**T3T MARATOIA EMF EUSKAL HERRIKO KOPAKO ETA KLUBEN ARTEKO EMF TXAPELKETA  
IZANGO DELA KONTUTAN IZANDA, IRAKURRI BERAIEK LEGEDIA.**

<https://emf.eus/eu/araudiak/>

## 8. DORTSAL BANAKETA ETA KONTSIGNA ZERBITZUA

- Dortsalen banaketa Tolosan egingo da, Triangulo plazaren alboan dagoen Zerkausian (<https://maps.app.goo.gl/eCMkKjvaHM93MwCC6>).
- Ordutegia hurrengo hau izango da:
  - **Larunbata, 17:00etatik 20:00ak bitarte.**
  - **Igandea, probaren egunean, 07:00etatik 8:15ak bitarte, artean leku berean.**
- Dortsalak jasotzera, norbanakoa agertu beharko da identifikazio ofizialeko ziurtagiriren batekin. Ezingo da beste baten izenean dortsalik hartu. Dortsalak hartzerakoan antolakuntzak norberari identifikaziorako eskumuturrekoa jarriko dio, eta lasterketa amaitu bitartean ezin izango du kendu.
- Antolakuntzak kontsigna zerbitzua eskainiko die parte hartzaile guztiei irteera/helmugan puntuari. Eskumuturrekoa eta dortsala ezinbestekoak izango dira.

## 9. EZINBESTEKO MATERIALA

### • T3T maratoia

- **Haize-babesgarria.** Mauka luzekoa izan beharko da derrigorrean. EZ da txalekorik onartuko. Burukoa ere eduki dezan hobesten da, nahiz eta puntu hau ez den derrigorrezkoa izango mauka luzea moduan. Atal hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.
- Eguraldi txarra eginez gero: **“txubaskeroa”** edo **euritakoa**. Atal hau antolakuntzak argituko luke dortsala hartzeko unean aurreikuspenen arabera.
- Eguraldiaren iragarpena oso beroa bada, antolakuntzak, **edateko likido kopuru** jakin batekin ateratzera behartu dezake korrikalaria. Hau ere dortsal banaketan argituko litzateke.
- **Manta termikoa edo biziraupeneko**a, (gutxienez 1,20 X 2,10)
- **Eskumuturreko pertsonal** eta transferi ezina eskumuturrean jantzita eramatea derrigorrezkoa izango da momentu oro. Atal hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.
- **Edalontzia edo edateko balio duen elementuren bat**, hala nola soft flask edo horrelakoak. Anoa postuetan ez da edalontzirik izango, parte hartzaile bakoitzak bere edalontzia eraman beharko du. Atal hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.

### • T2T lasterketa

- Eguraldi txarra eginez gero: **“txubaskeroa”** edo **euritakoa**. Atal hau antolakuntzak argituko luke dortsala hartzeko unean aurreikuspenen arabera. Honez gain, eguraldiaren iragarpena oso beroa bada, antolakuntzak, edateko likido kopuru jakin batekin ateratzera behartu dezake korrikalaria. Hau ere dortsal banaketan argituko litzateke.
- **Eskumuturreko pertsonal** eta transferi ezina eskumuturrean jantzita eramatea derrigorrezkoa izango da momentu oro. Atal hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.
- **Edalontzia edo edateko balio duen elementuren bat**, hala nola soft flask edo horrelakoak. Anoa postuetan ez da edalontzirik izango, parte hartzaile bakoitzak bere edalontzia eraman beharko du. Atal hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.

**Beraz, derrigorrezko material antolakuntzak eguraldi egoerarengatik lasterketaren baino lehen aldatu ezean, T3Tn haize babesgarria, eskumuturrekoa eta edalontzia izango dira; T2Tn aldiz eskumuturrekoa eta edalontzia.**

Derrigorrezkoa izango da ezinbesteko material guztia irteera lekurako atetik sartzerakoan aurkeztea. Atal hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.

Ez da bastoien kontrolik egingo. Beraz norberaren erabileraren baita geratzen da lasterketa osoan zehar eramatea edo ez.

## 10. ANOA GUNEA ETAKANPO LAGUNTZA

- Helmugakoaz gain, gutxienez 7 anoa gunez izango dira ibilbidean zehar. Gune horietan, energetikoak eta hidratatzaileak diren produktuak eskainiko dira.
- Anoa postuetan dauden arduradunen argibideak betetzea derrigorrezkoa izango da. Arau hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.
- Anoa guneetan norbait zuzenean antolakuntzaren botilatik edaten hasiz gero zuzenean lasterketatik kanporatua izango da.
- Anoa postuetan soilik eman daiteke kanpo laguntza norberaren jan edanekin arautako tartean.
- Lasterketan zehar, lasterkariei ezin zaie korrika lagundu.

## 11. KRONOMETRATZEA ETAPERREKLAMAZIOAK

- Lasterketaren kronometratzea dortsal txiparen bidez egingo da. Behin sailkapena jarri ondoren, parte hartzaileek, 30 minutu izango dituzte erreklamazioak egiteko. Denbora hori igaro ondoren, erreklamaziorik ez balego, sailkapenak behin betikoak izango dira. Txipa dortsala, bular aldean eramatea derrigorrezkoa izango da.

## 12. INGURUGIROA

- Lasterketa, ia bere osotasunean, natur guneetatik zehar igaroko da eta T3T maratoia Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremutik (KBR) igarotzen da. Hori dela eta, ingurua babestea derrigorrezkoa izango da, eta ondorioz, debekatuta egongo da edozer gauza lurrera botatzea.
- Horretarako zaborra biltzeko tresnak jarriko dira anoa gune amaiera guztietan.
- Arau hau hausten duena kanporatua izango da.
- Markatutako bideetatik ateratzea ere debekatuta egongo da.

## ERNIO - GAZUME

**Hernio-Gazume** Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) bat da, Natura 2000 Sarean aurkitzen dena. 2.158 ha-ko azalera eta kareharrizko erliebe karstikoa duen mendigune honek balio handiko paisaia-multzoak ditu.

Paisaia horietan mehatxatutako fauna espezieak bizi dira: hildako egurrean bizi diren intsektu deskonposatzaileak, kiropteroak (saguzarrak) eta hegazti sarraskijaleak (sai arrea eta sai zuria). T3T maratoia Hernio-Gazume naturagunetik igarotzen da. Bi lasterketen ibilbide osoa babesteko eta mantentzeko konpromiso sendoa izateaz gain, eremu babestu hau azpimarratu nahi dugu. Bereziki zorrotzak izango gara babestutako eremuaren barruan arauak betetzen direla bermatzen eta markatutako bideetatik ez irtetea kontrolatuko dugu. Lasterkari guztioi arduraz jokatzeko eskatzen dizuegu eta jan eta edaten dugun omentuan, inolako zaborrik ez botatzea eskatzen dizuegu. Halaber, bertako fauna gogaituko duen zaratarik ezin da sortu kanpo elementuekin. Laguntzaileek debekatuta dute babestutako eremu honetan lotu gabeko zakurrekin ibiltzea.

### 13. OSASUN ZERBITZUA

- Antolakuntzak, larrialdietarako osasun zerbitzua jarriko du ibilbideko lekurik estrategikoenetan. Halaber, helmugan, dutxa, garbiketa eta lehen mailako zerbitzu medikua eskainiko ditu horren beharrea aurkitzen diren kirolarientzat. Euren esana betetzea derrigorrezkoa izango da.

### 14. SEGURTASUNA

- Antolakuntzak, egoerak hala eskatuta, lasterketaren ibilbidea aldatzeko eta dagozkion gainerako aldaketak egiteko eskubidea izango du, eta baita bertan behera uztekoa ere, eguraldiaren baldintzek hala eskatzen badute, edo bestelako arrazoi nagusi batengatik, lasterketa batzordearen adostasunarekin.

### 15. LAGUNTZA EZBEHARRETAN

- Parte hartzaileak, laguntza beharrea aurkitzen diren parte hartzaileei laguntzera behartuta daude, eta baita kontrolatan haien gorabeheren berri ematera ere. Puntu hau ez betetzeak lasterketatik kanporatzea ekarriko du.

### 16. ERANTZUKIZUNA

- Antolakuntzak bere gain hartuko ditu, kontratatutako seguruaren estaldurapean baldin badaude, ibilbidean zehar gertatzen diren istripu guztiak. Aldiz, korrikalariaren erruagatik edo utzikeriagatik gertatu bada istripua, antolakuntzak ez du bere gain hartuko erantzukizunik. Parte hartzaileak, euren buruari edo besteei egindako kalte guztien erantzule izango dira.
- Bestalde, antolakuntzak ez du bere gain hartuko haiek kontratatutako aseguruaren estalduraz gaindiko, partaide, laguntzaile edo ikusleei gerta dakizkiekeen kalteen (galdu, lapurtu, puskatu...) ondorioz egindako erreklamazioen erantzukizunik.
- Proban izena eman duten guztiek, izena euren borondatez eman dutela ulertzen da. Hori dela eta partaide eta oinordekoek, erantzukizun zibilar dagokionez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

### 17. IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATU BABESA

- Parte hartzaile bakoitzak ontzat ematen du antolatzaileek edo/eta bere kolaboratzaileak ateratako argazki edo bideoetan euren irudia libreki erabiltzeko eskubidea, baita prentsara bidaltzeko ere. Horren eskubidea bermatzeko, ez da inongo inprimakirik bete beharko. Ezezkoaren kasuan ezin izango da proban parte hartu.
- Datu pertsonalak babesteko araudia aintzat hartuz izen ematean emandako datu pertsonalak erabiltzeko eta erantzukizunpean tratatzeko baimena ematen zaio antolakuntzari. Parte hartzaileak legediari jarraiki eskubideak ere izango ditu datu babesari dagokionez. Eskaera edo erreklamazio oro, [t3tmaratoia.saresozialak@gmail.com](mailto:t3tmaratoia.saresozialak@gmail.com) helbidera idatzita egin beharko dira.

## 18. ONARTZEA

- Araudi honek aldaketak eta hobekuntzak jasan ditzake antolakuntzak horrela erabakitzen badu.
- Aldaketarik balitz, parte hartzaile guztiei igorriko zaie ohiko kanalen bidez.
- Araudi honetan agertzen ez den punturik bada, EMF-FVMren araudia aplikatuko da.
- Lasterketan parte hartzean, araudia onartzen dela ondorioztatzen da.